

Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A

Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, S.A. Europako Batasunak Funtsak Sustatzeko Europako Seed Capital Egitarauaren atala da, zertarako-eta enpresa proiektu berritzaileen garapena, abian jartzeko faseari dagokionean, finantzatzeko.

Enpresa berri batek sozietatearen kapital erako finantzaketa aurkitzeko izaten dituen zailtasunak direla-eta, batez ere hasieratik sendotu arte, Europako Batasunak ereduizko proiektu hau jarri zuen abian sozietateetan hasierako kapitala sustatzeko, "seed capital", hau da, sustapena egiten den fasetik hasi eta ohiko kapital-arriskua ekartzeko erabakia hartu arte edo finantzatzeko beste formula bat hautatu arte.

Helburua

Bizkaiko Seed Capital-en helburua, enpresak berriak zein martxan daudenak, sustatu eta garatzea da; proiektu berritzaileak, produktu, merkatu edo ekoizpen prozesu berriak garatzeko asmoa dutenak, kudeaketa hobekuntzak, egonkortasuna edo jarraipena, etorkizunerako proiektzioa, lanpostu egonkorren eta aberastasunaren eraketa nahi duten enpresak.

Irudi Juridikoa

Bizkaiko Seed Capitalaren forma juridikoa ondokoa da:

- 1991 urtean eratuta hasieran 1,8 milioi euroko zuzkidura duen funtsa, edozein inbertsio publiko edo pribatu jasotzeko gertu dagoena; funts horren izena Bizkaiko Seed Capital, Kapital-arriskuko Funtsa da, enpresen kapitalean aldi baterako parte hartuz enpresen sustapenean eta garapenean aritzeko.
- Gaur egun funts hori handitzen ari da; gaur egunera arte ondareari dagokion 17,08 milioiko kopurua lortu da.

Seed Capital de Bizkaia forma parte del Programa Comunitario de Promoción de Fondos de Seed Capital en Europa desarrollado por la Unión Europea, con el fin de financiar el desarrollo de proyectos empresariales innovadores, en su fase de puesta en marcha.

Las dificultades que encuentra una nueva empresa para conseguir financiación en forma de capital social, desde sus comienzos hasta la etapa de consolidación, llevó a la Unión Europea a poner en marcha este programa piloto con el fin de impulsar la aportación de capital inicial "seed capital" a las nuevas sociedades, desde la fase de promoción hasta el momento de tomar la decisión de aportar capital riesgo tradicional u otra fórmula de financiación.

Objetivo

El objetivo de Seed Capital de Bizkaia es la promoción y desarrollo de empresas de nueva creación o existentes, que pretendan el desarrollo de proyectos innovadores, nuevos productos, mercados o procesos productivos, mejoras en la gestión, organización, estabilidad o continuidad, proyección de futuro, creación de empleo estable y generación de riqueza.

Figura Jurídica

Seed Capital de Bizkaia ha adoptado la forma jurídica de:

- Un Fondo, constituido en marzo de 1991, dotado inicialmente con 1,8 millones de euros y abierto a cualquier inversor público o privado que quiera invertir en él, denominado Seed Capital de Bizkaia, F.C.R.Pyme, para la promoción y desarrollo de empresas mediante la participación temporal en su capital.
- Actualmente, dicho Fondo se encuentra en proceso de ampliación, habiéndose alcanzado hasta la fecha la cifra de 17,08 millones de euros de patrimonio.



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

- Beste funtsa bat, kasu honetan 2006ko abenduan eratu zena, eta hasieran 2,05 milioi euroko zuzkidura izan zuena. Funtsa honi araubide sinplifikatuko Seed Capital Bizkaia Bi FCR deritzo.
- Gaur egun aipatu den funtsa horren ondarea zabaldu egin da 6,2 milioi euroko zenbatekora iritsi arte.
- Bi Funtsak berrizaleak izango diren enpresa txiki eta ertainetan inbertituko du normalean, hain zuzen ere berrizaleak hala berrikuntza teknologikoaren eta zerbitzuen arloan nola merkatu, prozesu, antolakuntza eta giza kapitalen berrikuntza ez teknologikoan, edo bietan.
- Funtsak kudeatzen dituen sozietate bat; horren kapitala 330.550 eurokoa da, eta Bizkaiko Seed Capital, Kapital-arriskuko Erakundeak Kudeatzeko Sozietatea, S.A. da. Funtsa administratzeko sortu da.
- Otro Fondo constituido en diciembre de 2006 y dotado inicialmente con 2,05 millones de euros, denominado Seed Capital Bizkaia Bi FCR Pyme.
- Actualmente el patrimonio de dicho Fondo ha sido ampliado hasta la cifra de 6,2 millones de euros.
- El Fondo Bi invertirá habitualmente en empresas de tamaño pequeño y medio que sean innovadoras, bien en el ámbito de la innovación tecnológica de productos y servicios, o bien en el de la innovación no tecnológica de mercados, procesos, organización y capital humano, o en ambos.
- Una Sociedad Gestora de Fondos, con un capital social de 330.550 euros, denominada Seed Capital de Bizkaia, Sociedad Gestora de Entidades de Capital Riesgo, S.A., destinada a la administración de los Fondos. En el ejercicio 2016 dicho capital social ha sido ampliado hasta la cifra de 718.338,24 euros.

Hurrengo koadroan, eratzean (hala funtsetan nola sozietate kudeatzailean) parte hartzen duten erakundeen zerrenda ageri da.

En el cuadro siguiente se relacionan las entidades participantes, tanto en los Fondos como en la Sociedad Gestora.

ERAKUNDEA / ENTIDAD

Bizkaiko Foru Aldundia/
Diputación Foral de Bizkaia

Beaz, S.A.U.

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria S.A.

Kutxabank S.A.

Iberdrola, S.A.

Banco de Sabadell S.A.

Banco Santander S.A.

Petroleos del Norte, S.A.

Euskadiko Kutxa / Caja Laboral Popular

Axa Seguros Generales, S.A.

El Corte Inglés, S.A.

Erkide (Federación de Cooperativas de Trabajo asociado, enseñanza y crédito de Euskadi)

Banco Popular S.A.



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

Arrisku-kapitaleko funts berriak

2014an arrisku-kapitaleko bi funts berri eratuko dira. Arrisku-kapitaleko funtsak kudeatzeko Seed Capital de Bizkaia baltzuak kudeatuko ditu biak:

2014ko urtarrilean horietako funts bat eratu zen, hots, "Fondo de Emprendimiento e Innovación Social FCR de Régimen Simplificado" (araubide erraztuko Ekintzailera eta Gizarte Berrikuntzarako FCR Funtsa), gizarte-izaera baina enpresa-bokazioa duten proiektuak finantzatzeko helburuz.

Funts hori 1.650.000 €-ko hasierako ondarearekin eratu da. Bizkaiko Foru Aldundiak eman du ondare hori.

2014ko irailaren 23an beste Funts bat eratu da. Funts horrek "arrisku-kapitaleko baltzua" forma juridikoa du, Araubide erraztuko Seed Capital de Bizkaia Mikro SCR S.A. da horren izena eta gaur egungo funtsak baino txikiagoak diren enpresa-ekimenei mikrokredituen bidez laguntzeko sortu da.

Baltzu horren hasierako kapitala 1.200.000 €-koa da eta erdi bana jarri dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Araubide Erkideko Seed Capital de Bizkaia FCR baltzuak.

2015eko ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiak 600.000,00 €-tan gehitu zuen SCR baltzuaren kapitala. Hortaz, SCR baltzuaren kapitala 1.800.000 €-koa da.

Europako Erkidegoaren laguntza

Europako Batasunak, politika erregionalerako eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko zuzendaritza nagusien bidez, ondoko diru-laguntza hauek eman zituen Bizkaiko Seed Capital funtsa sortzeko eta garatzeko:

Nuevos Fondos de Capital Riesgo

En 2014 se constituyeron un nuevo Fondo, de capital riesgo, y una nueva Sociedad de capital riesgo, ambos gestionados por Seed Capital de Bizkaia Sociedad Gestora de Fondos de Capital riesgo:

En enero 2014 se constituyó uno de ellos denominado Fondo de Emprendimiento e Innovación Social FCR Pyme, enfocado a la financiación de proyectos de carácter social pero con vocación empresarial.

Dicho Fondo se constituyó con un patrimonio inicial de 1.650.000 € aportados por Diputación Foral de Bizkaia.

El 23 de septiembre de 2014 se constituyó otro Fondo bajo la figura jurídica de una Sociedad de Capital Riesgo, denominada Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A., para apoyar iniciativas empresariales de menor entidad que las de los fondos actuales, mediante la concesión de microcréditos.

El capital social inicial de dicha sociedad es de 1.200.000 € aportados al 50% por Diputación Foral de Bizkaia y Seed Capital de Bizkaia FCR de Régimen Común.

En el ejercicio 2015 hubo una ampliación de capital de la SCR suscrita íntegramente por Diputación Foral de Bizkaia por importe de 600.000,00 €, situándose el capital de la SCR en 1.800.000 €.

Apoyo de la Comunidad Europea

La Unión Europea, a través de las direcciones generales de política regional y de apoyo a la pequeña y mediana empresa, concedió las siguientes subvenciones para la creación y desarrollo del fondo Seed Capital de Bizkaia:



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

- Alde batetik, XVI. Zuzendaritza Nagusiak (FEDER) 162.273 euroko diru-laguntza eman zion BEAZ, Bizkaiko Enpresa eta Aurrerakuntzarako Zentroari, lehenengo funtsean parte hartzeko.
- Beste aldetik XXIII. Zuzendaritza Nagusiak (enpresa txiki eta ertainak) itzul daitekeen diru-laguntza eman zuen, ustiapenaren lehenengo bost urteetan jardunbidearen kostuak finantzatzeko.
- Por un lado, la Dirección General XVI, FEDER, concedió a BEAZ, Centro de Empresas e Innovación de Bizkaia, una subvención de 162.273 euros para participar en el primer fondo.
- Por otro lado, la Dirección General XXIII, PYMES, concedió una subvención reintegrable para financiar los costes de funcionamiento durante los cinco primeros años de explotación

Sozietatearen Jarduera

Indarrean dagoen legerian ezarri denarekin bat eta sozietatearen izenean bertan adierazi dena betetzeko, Bizkaiko Seed Capital, Kapital-arriskuko Erakundeak Kudeatzeko Sozietatea, S.A. enpresaren helburua kapital-arriskuko funtsak kudeatzea da eta dagozkion jarduerak ondoko hauek dira:

- Erakunde publiko zein pribatuen eta sozietateen dirua erakartzea, bi funtsen partaidetzetan inbertitzeko.
- Funtsen eraketa, eraldaketa edo likidazioaren eskritura publikoa egitea eta Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren administrazio erregistroetan inskribatzea
- Bizkaiko Seed Capital funtsen inbertsioak bilatzea eta aukeratzea, funtsen inbertsioak egiteko politika eta araudiarekin bat etorritik; halaber, inbertsioak egiteko erak erabakitzea, parte hartu zaien enpresen kudeaketan aritzea eta bidezko deritzon inbertitu den hori kentzea.
- Bidezkoa bada, ekitaldiko emaitzak banatzea, funtsen araudiarekin bat etorritik.
- Funtsen ondarea osatzen duten tituluen ondorio diren eskubideak baliatzea.
- Captación de dinero de instituciones públicas o privadas y sociedades para ser invertido en participaciones de ambos fondos.
- Elevar a escritura pública la constitución, modificación o liquidación de los fondos y su inscripción en los Registros Administrativos de la Comisión Nacional del Mercado de Valores.
- Buscar, captar y seleccionar las inversiones de los fondos Seed Capital de Bizkaia de acuerdo con la política de inversiones y normativa de éste, realizar las inversiones, participar en la gestión de las participadas y desinvertir cuando lo considere oportuno.
- Adoptar, si procede, la distribución de los resultados del ejercicio, de acuerdo con las normas del Reglamento de los Fondos.
- Ejercer los derechos derivados de los títulos que integran el patrimonio de los Fondos.

Actividad de la Sociedad

Según establece la legislación vigente y tal y como indica el propio nombre de la sociedad, el objetivo de Seed Capital de Bizkaia, Sociedad Gestora de Entidades de Capital Riesgo, S.A. consiste en la gestión de Fondos de Capital Riesgo y sus actividades son las siguientes:



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

- Funtsen kontabilitatea egitea, sozietate kudeatzailearen kontabilitatetik behar bezala bereizita.

Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak bi Batzorde Betearazle eratzea erabaki zuen; batzorde horien xedea Bizkaiko bi Seed Capital funtsen inbertsioak edo/eta desinbertsioak onartzea da, funtsen araudietan ezarritakoaren arabera.

Batzorde Betearazlearen kideak ondoko era honetara izendatzen dira:

- * Lau kide Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak izango dira.
- * Lau kide gainerako enpresa bazkideen ordezkariak izango dira; horietariko bat finantzaz besteko erakunde bazkideetariko baten ordezkaria izango da.

Inbertsioak egiteko politika

Bizkaiko Seed Capitalek erabat lagunduko ditu enpresa txiki eta ertainak edo sorkuntzarako egitasmoak, betiere bere irizpideak eta estrategiak kontuan hartuta; laguntzarako kapitala zuzkituko die eta funts propio handiagoak izateko aukerak areagotu; eskura dituen neurri guztiak erabiliko ditu ahalik eta arrakastarik handiena eskuratzeko balioko duen partaidetza sustatzeko.

Bizkaiko Seed Capitalek ondoko irizpide nagusi hauei jarraiki egingo ditu inbertsioak:

- * Arloak bereiztea. Arloak bereiztuko ditu, batez ere jarduera garatzeko duen aldearen ezaugarriak kontuan hartuta. Hau jarduteko funtsezko irizpidea da, arlo berean dena pilatzeak arriskuak metatzea ekarriko lukeelako.

- Llevar la contabilidad de los Fondos debidamente diferenciada de la Sociedad Gestora.

El Consejo de Administración de la Sociedad Gestora acordó la creación de dos Comités Ejecutivos, que tienen por objeto la aprobación de las inversiones y/o desinversiones de los dos Fondos Seed Capital de Bizkaia, establecida en sus Reglamentos.

Los miembros del Comité Ejecutivo se asignan de la siguiente manera:

- * Los representantes de la Diputación Foral de Bizkaia constituirán cuatro miembros.
- * Los representantes del resto de las empresas socias constituirán cuatro miembros; uno de los cuales será el representante de una entidad socia no financiera.

Política de Inversiones

Seed Capital de Bizkaia apoyará decididamente a aquellas PYMES o Proyectos de creación de acuerdo con sus criterios y estrategia, proporcionándoles capital de apoyo, dotando de mayores fondos propios y poniendo todas las medidas a su alcance para potenciar a sus participadas para que puedan alcanzar el mayor éxito posible.

Seed Capital de Bizkaia realizará sus inversiones conforme a los siguientes criterios básicos:

- * Diversificación de sectores. La diversificación sectorial, debido fundamentalmente a las características de la zona en que su actividad ha de desarrollarse, es un criterio básico de actuación ya que la excesiva concentración en un mismo sector, llevaría una alta concentración de los riesgos.



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

Egun gure inbertsioak ondoko arlo hauetan biltzen dira: komunikazioak, informatika aplikatua, ingeniartzak, makina-tresna, elektronikak, ehungintza, argitalpenak, ostalaritza, aisia, energia eta bizitza eta osasuneko zientziak (bioteknologia).

- * Inbertsio gehienak enbrioi-egoeran dauden enpresetan eta enpresa sortu berrietan egingo dira. Beraz, "seed financing" eta "start up financing" etapetan dauden enpresa txiki eta ertainetan inbertitzen da.

Hala ere, lehendik dauden enpresa txiki eta ertainetan ere inbertitzen da, garatzen, sendotzen eta zabaltzen laguntzeko.

- * Partaidetza ez da sozietatearen kapitalaren % 45etik gorakoa izango.

Dena dela, funtsen inbertsioek Kapital-arriskuko Erakundeei buruzko Legean jarri diren mugak gorde beharko dituzte.

Inbertsioak hautatzeko irizpideak

Kontuan hartu behar dugu, lehenengo eta behin, inbertsiorik gehienak enpresaren unerik arriskuenetan egiten dituzten funts batzuen aurrean gaudela, hau da, beren beregi kapital-arriskuko sozietate klasikoetan sailhesten dena, eta, ondorioz, inbertsioak egiteko irizpideak ondoko hauek izango dira:

- * Irizpide orokor modura, inbertsioak proiektu berritzaileetan egingo dira, edota etorkizun ona duten edo enplegua sortzen duten proiektuetan.
- * Arlo tekniko, finantzario eta ekonomikoak kontutan hartzen duen Bideragarritasun Plana aurkeztu beharko da ahalik eta zorrotasunik handienarekin.

En la actualidad, nuestras inversiones se centran en los sectores de: comunicaciones, informática aplicada, ingenierías, máquina herramienta, electrónica, textil, editorial, hostelería, ocio energía, y ciencias de la vida y de la salud (biotecnología).

- * La mayor parte de las inversiones se realizarán en empresas embrionarias y de nueva creación. Se invierte, por tanto, principalmente en PYMES que se encuentran en etapas denominadas "seed financing" y "start up financing".

Pero también se invierte en PYMES ya existentes, para contribuir a su desarrollo, consolidación y expansión.

- * La participación en una empresa no será superior al 45% de su capital social.

De todas maneras, las inversiones de los Fondos están sujetas a las limitaciones señaladas en la Ley de Entidades de Capital Riesgo.

Criterios de Selección de las Inversiones

Hemos de tener en cuenta que estamos ante unos Fondos, en que la mayoría de sus inversiones las realizan en los momentos de más alto riesgo de la empresa, contrariamente a lo que ocurre en las clásicas Sociedades de Capital-Riesgo, por lo tanto, los criterios de selección de inversiones serán los siguientes:

- * Como criterio general las inversiones se realizarán en proyectos con carácter innovador, con proyección de futuro o generadores de empleo.
- * Plan de Negocio con coherencia y credibilidad, que demuestre su viabilidad técnica, económica y financiera



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

- * Kokalekua: enpresak, nahitaez, Bizkaian egon behar du.
- * Sustatzailea eta zuzendaritza-taldea (ekarpena): sustatzaileak proiektuaren sustapenaren kostuan parte hartu behar du, eta "start up" fasera iritsiz gero, sozietate berriaren kapitalean ere bai. Proiektua aurreratuta badago, izango duen edo duen zuzendaritza-taldea aurkeztuko du, talde hori funtsezkotzat hartzen baita edozein enpresa-proiektu garatzeko.
- * Sektore aniztasuna
- * Enpresa proiektu edo enpresa berrietan inbertituko da, jarduera abian jarri eta bultzatzeko, baita lehendik dauden enpresetan ere, gara eta zabal daitezen.
- * Lugar de localización: el lugar donde la empresa debe ser ubicada, es Bizkaia.
- * El promotor/a y equipo directivo (aportación): El promotor/a debe participar tanto en el costo de promoción del proyecto, como si llega a la fase de Start-up en el capital de la nueva sociedad. Si el proyecto está en fase suficientemente avanzada, presentará a su futuro o actual equipo directivo, ya que éste se considera primordial en cualquier desarrollo empresarial.
- * Diversificación de sectores.
- * Se invertirá en proyectos empresariales o empresas de nueva creación, para su puesta en marcha y lanzamiento de la actividad, y en empresas ya existentes, para su desarrollo y expansión.

Proiektuak hautatzeko prozesu honen barruan lau etapa bereiztuko ditugu:

- 1) Kontaktua: Sustatzaileekin lehenengo elkarrizketa.
- 2) Aurre- Analisia: proiektuaren aurkezpena; horretan kudeatzailetzako espezialistek eskatutako gutxieneko datuak azalduko dira.
- 3) Analisia: sozietate kudeatzaileak proposamena onetsi ondoren, sustapen edo bideragarritasun plana aurkeztuko da, ezarritako eredu jarraituz.
- 4) Inbertsio potentziala: kudeatzailetzak proiektua bideragarria eta interesgarria dela iritziz gero, inbertsioaren egitura zehatza negoziatuko da.
- 5) Batzordea: Sustatzaileek proiektua aurkeztuko dute Batzordean, eta honek azken erabakia hartuko du.

Kapital-arriskuko inbertsioak gauzatzeko tresnarik garrantzitsuenak ondoko hauek dira:

Distinguiremos cuatro etapas en el proceso de selección de proyectos:

- 1) Contacto: Entrevista con el equipo promotor.
- 2) Preanálisis: Presentación del Proyecto, con unos datos mínimos requeridos por los especialistas de la Gestora.
- 3) Análisis: Aceptada la propuesta por la Sociedad Gestora se presenta el Plan de Negocio o de viabilidad según los criterios establecidos.
- 4) Inversión Potencial: Una vez que se considera por la Gestora que el proyecto es viable e interesante, se negocia la estructura concreta de la inversión.
- 5) Comisión: Se presenta el proyecto a la Comisión que decidirá su aprobación.

Los principales instrumentos en los que se materializarán las inversiones de Capital-Riesgo serán:



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

- Akzio arruntak: zeinu desberdinetako eskubideak eta abantailak ematen dituztenak dira. Horien artean urtero jasoko den gutxieneko dibidendua jasotzeko eskubidea dago, edota enpresa likidatuko balitz enpresarioaren gaineko lehentasuna.
- Partaidetza maileguak/kredituak: epe luzerako maileguak dira, zeinetan finantza-zama emaitzen mendean baitago eta korritu finkoetz gehi mozkinetako parteaz osaturik baitago. Azken lerruneko mailegua da, zeinean hartzekodunak akziodunak baino lehen bakarrik kobratzen baitu. Funts propiotzat hartzen da.
- Acciones ordinarias: son las que conceden derechos y ventajas de distinto signo. Entre ellas la garantía de obtener un mínimo dividendo a percibir anualmente, o la prelación sobre el empresario/a, si se diera el caso de liquidación de la empresa.
- Préstamos/créditos participativos: Son préstamos a largo plazo, en que la carga financiera depende de resultados y se compone de interés fijo más participación en beneficios. Se trata de un préstamo de último rango en que el acreedor sólo cobra antes que los accionistas. Tiene la consideración de fondos propios.

Sozietateak parte hartzen dien enpresei laguntza ematea

Funtsak enpresa baten sozietatearen kapitalean parte hartzen duen unetik aurrera, sustatzaileei laguntza emango dio:

- Administrazio Kontseiluan parte hartzen.
- Enpresarioarekin lankidetzan proiektuaren arrakastatsua izateko, enpresaren kudeaketan laguntzen.
- Bideragarritasun planean aurreikusi diren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahaleginak egingo direla bermatzen.

Kapitala berreskuratzeko estrategiak

Bizkaiko Seed Capitalek egingo dituen inbertsioen xedea ez da finantzatu den enpresa horretan partaidetza iraunkorra izatea; beraz, kapitala berreskuratzea funtsezko betebeharra da jarduera honetan.

Bizkaiko Seed Capitalen xedea, sortzeko prozesuan dauden enpresa edo enpresa berriak finantzatzea da. Era berean, lehendik dauden enpresak ere finantza daitezke, harik eta erosle batek erosi arte funts honek enpresan egindako inbertsioa. Desinbertsio horretan gainbalio batzuk eskuratzen dira.

Asistencia a participadas.

Desde el momento en que el Fondo participe en el capital social de una empresa se apoyará al equipo promotor:

- Participando en el Consejo de Administración.
- Colaborando con el empresario en el buen éxito del Proyecto ayudándole en la gestión empresarial.
- Garantizando que se llevarán a cabo los esfuerzos necesarios para el cumplimiento de los objetivos propuestos en el Plan de Viabilidad.

Estrategia de recuperación del Capital.

La inversión realizada por Seed Capital de Bizkaia no persigue una participación indefinida en la empresa financiada, por tanto la recuperación del capital constituye un factor esencial en esta actividad.

El objeto de Seed Capital de Bizkaia será la financiación de las empresas embrionarias o nuevas empresas, pudiendo hacerlo también en empresas existentes, hasta que un comprador/a adquiera la inversión que este Fondo realizó en la empresa, obteniendo en la desinversión unas plusvalías.



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

Beraz, sozietate kudeatzailearen xedea parte hartu zaion enpresa horretatik gainbalioa eskuratuz irtetea da, 5 eta 7 urte bitarteko batez besteko epearen barruan.

Irtete horrek aukera emango du, alde batetik, sustatzaileak Bizkaiko Seed Capitalen esku hartzearen onurak jasotzeko, eta, aldi berean, funtsek beste proiektu interesgarri batzuetan inbertitzeko.

Desinbertsioa egiteko erarik garrantzitsuenak ondoko hauek dira:

1. Enpresarioak edo enpresak partaidetza erostea, horretarako berrerosteta ituna ezarriko dela.
2. Enpresa saltzea.
3. Aurreragoko etapetan espezialista den beste kapital-arriskuko sozietate bati saltzea.
4. Akzioen eskaintza publikoa, hala bigarren mailako burtsa-merkatuan sartuta nola araupetu gabe dauden merkatu askeetan.
5. Enpresaren egoera txarra balitz edo sarrerako kontratuan itunduta dagoenaren arabera desinbertsioa ezinezkoa balitz, enpresaren likidazioa erabakitzea inbertitu dena berreskuratuzeko.

Oro har, Bizkaiko Seed Capitek utzi egin behar du partaidetza hori, noiz-eta bere presentzia nahitaezkoa ez denean, eta hutsune hori betetzeko beste inbertitzaile batzuk bilatuko dira.

Por tanto, será objeto de la Sociedad Gestora, tratar de salirse de la participada obteniendo una plusvalía, en un plazo establecido por término medio entre 5 y 7 años.

Esta salida hará posible, de una parte, que el promotor/a se beneficie de la aportación e intervención de Seed Capital de Bizkaia y a la vez que esa salida permita la financiación por parte de los Fondos de otros proyectos interesantes.

Las modalidades principales de efectuarse la desinversión serán:

1. La compra de la participación por parte del empresario o de la empresa, con pacto de recompra.
2. La venta de la empresa
3. La venta a otra sociedad de Capital-Riesgo, especializada en la compra de etapas más avanzadas.
4. La oferta pública de las acciones. bien mediante la entrada en el segundo mercado bursátil o mediante la participación en los mercados libres no regulados.
5. Ante la mala marcha de la empresa o la imposibilidad de desinvertir según lo pactado en el contrato de entrada, decidir la liquidación de la empresa para recuperar lo invertido.

En definitiva, Seed Capital de Bizkaia debe desvincularse de la participada cuando su presencia ya no sea indispensable, buscando otros inversores que ocupen su lugar.



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.
Sociedad Gestora Seed Capital S.A**

Seed Capital Funtsen Europako Sarea

Bizkaiko Seed Capital deritzona Europako Erkidegoak sortu zuen Seed Capital Funtsen Europako Sarearen barruan dago; sare horretan Europako 24 Seed Capital funts daude eta horien xedea funts hauen laguntza jasotzen dutenentzat jarduerak sustatzea da, zertarako-eta 1993an abian jarri zen Europako Merkatu Bakarra indarrean jarri zenean sortu ziren abantailak aprobetxatzeko.

Seed Capital Funtsen Europako Sarearen koordinazioa EVCA - Kapital-arriskuaren Europako Elkarteari agindu dio Europako Batzordeak, elkartea horrek esperientzia handia duelako kapital-arriskuko funts europarren koordinazioan eta aholkularitzan.

Sareak ondoko zerbitzu hauek eskainiko dizkie funtseko bazkideei:

- Informazioa, hilero argitaratuko den aldizkari baten bidez.
- Informazioa, funtsen kudeatzaileentzat ikastaroak eta mintegiak antolatuz.
- Dokumentazioa, prestakuntza mintegietan erabiltzen diren lan agiri eta metodologiei buruzkoa.
- Aholkularitza, hots, funtsen esku adituak jartzea, edozein eragozpen dagoenean laguntza emateko.
- Seed Capital erako funts guztien arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzea.

Red Europea de Fondos de Seed Capital

Seed Capital de Bizkaia pertenece a la Red Europea de Fondos Seed Capital creada por la Comunidad Europea, que une a los 24 fondos Seed Capital de Europa, con el fin de promover actividades que faciliten, a las empresas apoyadas por estos fondos, el aprovechamiento de las ventajas creadas con la entrada en vigor del Mercado Unico Europeo en 1.993.

La coordinación de la red Europea de Fondos Seed Capital ha sido encomendada por la Comisión Europea a la EVCA, Asociación Europea de Capital Riesgo, debido a su amplia experiencia en la coordinación y asesoramiento de los fondos de capital riesgo europeos.

Esta red prestará los siguientes servicios a los fondos miembros:

- Información, a través de la publicación de una revista mensual.
- Información, mediante la organización de cursos y seminarios para los gestores de los fondos.
- Documentación, sobre los documentos de trabajo y metodologías utilizadas en los seminarios de formación.
- Asesoramiento, que consistirá en poner a disposición de los fondos, expertos que les asistirán ante cualquier dificultad.
- Promover la cooperación y coordinación entre los diferentes fondos Seed Capital.